# Zaldibar urtebete joan eta gero

Urtebete joan da 2020ko otsailaren 6an Zaldibarko Verter Recycling hondakindegia amildu zela. Gertatutakoaren erantzukizunak ez dira argitu oraindino.

2020ko otsailaren 6a



**LUR-JAUSIA**

"Dimentsio handiko" luizia gertatu da Zaldibarren, eta A-8 autobidea moztuta dago. Verter Reciclyng enpresak kudeatzen duen zabortegia amildu egin da.

2020ko otsailaren 6a



**ERRESKATEA**

Martxan ipini dituzte Alberto Sololuze eta Joaquín Beltran langileak aurkitzeko erreskate lanak.

2020ko otsailaren 7a



**AMIANTOA ETA SUTEAK**

Erreskate lanak eten egin behar izan dituzte hondakinen artean amiantoa dagoela baieztatu duzelako. Suteak piztu dira eta horrek ere eten egin du erreskatea.

2020ko otsaila




**ARAU-HAUSTEAK**

Hondakindegian arau-hausteak zeudela jaso zuen Jaurlaritzak 2019ko uztailean.

2020ko otsailaren 8a



**AUZOKIDEAK HASERRE**

Eitzagako auzokideek informazio eza salatu dute. Txorroteko urik ez edateko esan diete. Auzokide batzuek euren etxetik irten behar dute. Suteen eraginez kea arnasten dabiltza.

2020ko otsailaren 9a



**IREAREN KALITATEA**

irearen kalitatearen neurketen arabera, otsailaren 9koan ioxina eta furano tasa altuak opatu dituzte. Inguruko herrieako bizilagunei leihoak ixteko skatu diete.

2020ko otsailaren 15a




**MOBILIZAZIO JENDETSUA**

Mobilizazio ugari egin dute urte osoan zehar, Zaldibar Argitu plataformak deituta. Jendetsuena, otsailaren 15ekoa. Ermutik, Eibartik eta Elgetatik irtendako zutabeek Eitzaga auzoan bat egin dute.

2020ko apirilaren 8a



**PERITU AZTERKETA**

Aditu talde bat Zaldibarko zabortegiko lur-jausia zerk eragin duen ikertzen dabil, Ingurumen Sailak hala eskatuta. Adituek azken peritu-txosten bat prestatuko dute. Bertan, luiziaren eragile posibleak adieraziko dituzte.

2020ko uztailaren 21a



**AUZI JUDIZIALA**

Zaldibarko Verter Recycling zabortegiko hiru arduradunak atxilotu dituzte. Baldintzapean aske utzi dituzte. Eibarko Ertzaintzaren komisarian zein ondoren Durangoko Auzitegian egon diren denboran ez deklaratzeko eskubidea baliatu dute atxilotuek. Durangoko epaitegian instrukzio bi egiten dabiltza: langileen eta pertsonen kontrako delituren bat egon den ikertzen dabiltza. Bestetik, ingurumenaren aurkako deliturik badagoen aztertzen dabiltza.

## Jaurlaritzaren ebazpena

Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 10ean kaleratu zuen iazko martxoaren 4an zabaldutako ingurumen espedientearen ebazpena. Horren arabera, Verter Recycling da zabortegia amildu ostean izandako ingurumen kalteen arduraduna.

Bestalde, Verter enpresak "zorroztasun handiagoa" eskatu dio Jaurlaritzaren ebazpenari. "Ingurumen Erantzukizuneko legean erantzukizunak esleitzeko ezarritako baldintzak ez dira betetzen", azaldu du enpresak.



## Zaldibar Argitu

Urte honetan, Zaldibar Argitu plataformak hainbat mobilizazio antolatu du. Gertatutakoaren erantzukizuna argitzea eskatu dute. Konfinamendu sasoian ere protestak antolatu zituzten, etxetik izan arren. Urtebete igaro dela gogoratzeko, mobilizazioak antolatu dituzte hainbat herritan zapaturako. Zaldibarren, 13:00etan.




2020ko azaroaren 24a



**EUROPAKO PARLAMENTUA**

Europako Batzordeak Zaldibarko hondakindegiko lur-jausia aztertuko du. Europako Parlamentuan, Ekologistak Martxanek, Zaldibar Argituk eta San Lorenzoko auzo elkarteak egin dute eskaera.

2020ko abuztuaren 16a



**BEHARGINEN BILA**

Zaldibarko zabortegian Alberto Sololuzeren gorpuzkiak aurkitu dituzte. Joaquín Beltranen bila jarraitzen dute.